

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Santa Ageda
jaia /08**

EUSKARA

**Jende asko euskararen
jardunaldietan /09**

LEINTZ GATZAGA

**Umeendako zine
emanaldiak /10**



TXAKURREN GAINENKO ARAUAK

**Bandoa atera du Udalak Txakurren gaineko
arauak errespeta daitezen**

SANTA AGEDA MUTILAK: OHITURARI EUTSIZ/5 • KIROLAK: IGERIKETA IKASTAROAK/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 7
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 8
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOK JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
UDALTZAINGOA	
Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIAK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 12:30ean.

OHARRAK

SANTA AGEDA MUTILAK
Atzo, Santa Ageda eguna, hasi eta Aratuste-domekara bitartean, domekero egingo dute dantzan Santa Ageda mutilek, plazan, 19:00etan.

CURTISERA MARTXA
Curtisera martxa antolatuta dute Kepa Urria euskal presoari elkartasuna adierazteko, haren urtebetetze egunean. Otsailaren 13an, egubakoitza, irtengo dira, Azbe lantegi paretik, 23:00etan.

MEDITAZIO IKASTAROA
Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak meditazio ikastaroa antolatuta du. Otsailaren 9an hasiko dituzte eskolok, eta Sadhana zentroan bertan emango dituzte 11:00etatik 12:00etara. Izena emateko deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ESKI IRTEERA
Murruxiko MEk eski irteera antolatu Luz Ardidenera martxoaren 6 eta 7rako. Izena emateko Murruxikora jo, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara.

BASOTXOKO ERRETIRATUAK BENIDORMERA
Basotxo Erretiratuen Elkarteak bidaia antolatu du Benidormera. Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra izango da bidaia, eta izena Basotxon bertan eman behar da.

LORAMENDIRENAGENDA

DIPOSITIBA EMANALDIA
Agurtzane Ugalde arrasatearrak *Tibet bizikletaz* izeneko diapositiba emanaldia eskainiko die aretxabaletarrei, hilaren 12an, eguna, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

DIAPoesia EMANALDIA
Poesia eta diapositiba elkartuz ikuskizun bitxia eskainiko dute azeptiar gazte batzuek hilaren 19an, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

ORAINDELA 11URTEARETXABALETAN

Areantzara ura eroateko lanak hasi zituzten

Areantza auzora Urkulutik ura eroateko lanak hasi zituzten 1993ko otsailaren hasieran. Etxaluze base-ri inguruan hasi zituzten lanok eta Mitarte Garai baserriraino sartu zituzten hodiak. Lanek hilabete bi inguru iraun zuten, eta aurrekontua zortzi milioi pezetakoa izan zen, 48 mila euro ingurukoa.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Mototxa.”

Ille mototxa.
—Pelukerixan mototx rubixo bat ipiñi dotse.




GORKA ORTEGA


ZORIONAGURRAK



ARETXABALETAKO
Ane Dacosta
30ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Gaizka Perez
2an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZAKO
Joxe Arkauz
4an, 73 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZAKO
Mikel Beloki
5ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Ekaitz Irusta
5ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO
Oxel Vaquez
10ean. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta anaiaren partetik.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETAKO 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA



‘Soinujolearen semea’

Bernardo Atxagak orain arte eginiko guztia liburu batean sartzeko asmotan egin du liburu hau, agur moduko bat egin ez orain arteko estiloari eta izenari(?). Bertan Obaba herria erabili du berriz, bere beste liburuetako gai eta elementuak sartu ditu, eta bere idazteko moduari buruzko zenbait pista ere ematen digu. Oraingoan bere lagun bat, soinujolearen semea, jarri du idazle eta protagonista modura; bera nobelako pertsonaia bat gehiago izango da. Nobelak gerra zibiletik 1999ra arteko tartea hartzen du, eta protagonistak bere bizitza eta bere aurrekoena ekartzen digu gogora, gerrako eta ETaren borrokako pasarteak batez ere.



SOINUJOLEAREN SEMEA
Bernardo Atxaga
Pamiela, 2003
473 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA



EGUZKIGRAF

inprimategia

25. urteurrena

1979-2004

ATREBENTZIAEZPADA/ Badauketzu animalixarik etxien? Lan haundixe emuten dutzu?



MARIBEL PABLO
Langillie



CONRADO PAUL
Langillie




CLEMO SILLERO
Langillie



JOSEBA ARRESE-IGOR
Iksaliek



MARI JOSE MORALEJA
Langillie



ANGEL BEDIA
Langillie

Bai, artzain-txakur bat dauket oin dala 7 urtetik, eta aurretik beste txakur bat euki neuen 11 urtien. Ez dust lan haundirik emuten, baiñe lotu egitten nauela onarketan dot.

Ez, txakur bi euki nittuen, baiñe etxien ez, txabola baten. Etxien be euki neuen bat, baiñe umerik ez neukien; oin ez neuke sartuko. Egixe da, gainera, lan apur bat emuten dauela.

Bai, perikito bi dittut. Semiek zainketan dittu, nik ez dutziet ezer egitten, baiñe ez daue aparteko lanik eskaketan. Balkoiien eguzkixe hartzen ixten dittugu eta gustora egoten die.

Bai, sei-arrain dauket. Ur hotzeko arraiñek die, txiki xamarrak, eta ez daue lan haundirik emuten. Lehen, tropikalak euki nittuen, ur epelekuek, eta horreik gehixau zaindu biher die.

Ez, eta alabiek be ez dust eskaketan, oingoz, behintzet. Eta ez jat gustetan, gainera, animalixek kaleko etxe txiki baten eukittie; baserri bat euki ezkerok, iguel bai.

Ez, semiek artzain-txakur bat dauko, baiñe neuk ez. Bakarrrik bizi da eta ez dutzo lan haundirik emuten. Nik behin euki neuen txakur bat, umiek txikixek zienien, eta ez dot gehixau gure.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK KARTOIAK EDUKIONTZITIK KANPO Behin baino gehiagotan atera ditugu kartoiak sail honetan, eta oraingoan ere halaxe egin behar dugu. Izan ere, benetan itxura zikina ematen diote kaleari edukiontzitik kanpo dauden kartoiak. Edukiontzia goraino bete barik egonda, gainera, zela da posible kartoiak kalean botata egotea? Akaso tolesteko lanik ez hartzearen izango da... / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 04

Txakurren gaineko bandoa

Txakurren gaineko bandoa jarri du Udalak, txakurren jabeek hausnarketa egin dezaten.

ASTEAN BEHIN / 05

Santa Ageda mutilak

Astean ibili dira Santa Ageda mutilak eskean eta batzen, eta domekero egingo dute dantzan.

KIROLAK / 06

Igeriketa ikastaroak

Adinari, jakintza mailari eta ordutegiari egokitutako igeriketa ikastaroak antolatu dituzte.

ASTEKODATUA

85

BOTO JASO ZITUEN MURU-ALDEN SARTU DEN NESKAK


Bazkide berriak hautatzeko bozketan egin zuten joan zen egubakoitzean Muru-Alde elkartearen. Hautagaietako bat neska zen, lehenengo aldiz elkartearen historian, eta 85 boto jaso zituen.

BESTEKEKESANA

“Asko gogoratzen naiz Aretxabaletarekin, pasarte bizienak eta gozoenak, hau da, 16 urte arte hor bizitakoa naiz-eta. Aspaldian ez naiz egon, azken aldiz Felix Iñurrategi mendigoizalea hil zenean egon nintzen, haren hileta elizkizunera etorri nintzen. Hala ere kontaktua mantentzen dut, eta denbora luzean ikusi barik egon arren atzo ikusi izan bagina bezala egoten gara. Estimatzen da eman behar didaten saria, halako adinean olio pixka bat da, ez? Baina sari handiena zera da: ikastolek gaur egun Nafarroan duten indarra ikustea. Ni zuzendari egon nintzenak, esaterako, 1.500 ikasle dituzte dagoeneko, eta dituen instalakuntzak ikusita eman du fruitua; hori nahikoa sari da niretako.

JESUS ATXA
Arrasate Irratia/04-02-02

HERRITARRENBERBAK/ Fernando Berrizbeitia



Garapena ala garaipena?

Datozen 16 urteei begira Administraritzak gure inguruarekiko zituen asmoen berri jakiteak susto galanta eman zigun bati baino gehiagori. Proposatzen diren astakerien artean nabarmenena Urkulu ingururako “habitat” proiektua zen: etxe piloak, auzo guztien arteko bideak, aisialdirako hainbat proposamen (golfa, ur kirolak...), Urkulu II delakoaren eraikuntza, e.a.

Planteamendu honek irizpide ekologiko, demografiko, sozial, ekonomiko eta, laburtuz, logiko guztien kontra jotzen bazuen ere, bizi garen munduan diruaren hotsaren eragina zein nolakoa izaten den ongi dakigu, eta beraz, ez ginen larregi harrutuko hau guztia aurrera eramaten dela ikusiz gero. Begira, bestela, nola “lan faraonikoak” perretxikoak moduan sortzen diren gure inguruan: autopistak, AHT, merkataritza zentro erraldoiak eta halakoak. Hori bai, hau guztia aurrera eramateko lehendabizi

diru publikoa erabiltzen da (hau da, gure dirua) eta gero, gure dirua erabili behar da ondasun hauetaz baliatu ahal izateko: ordainsariak, kontsumismoaren areagotzea, ordaindutako aisialdia, e.a.

Zorionez, gure inguruko udalek proiektu honen kontrako jarrera agertu dute, eta ondorioz, oraingo arnasa har dezakegu, lasai gaitzake apur bat. Baina ez gehiegi. Izan ere, honen guztion atzean neurri gabeko garapenaren aldeko apustua daukagu, gure garaiaren ikurra den apustua.

Eta apustu horren atzean beti daude interes ekonomikoak. Eta politikariak ez dira interes horietatik oso urrun ibiltzen. Eta udaletako norabideak aldatu egin daitezke. Edo, beste era batera esanda, gaur ezetz esaten zaionari agian bihar baietz esango zaio.

Garapena eta garaipena oso hitz antzekoak dira eta askotan ikusi dugu nola gehiengorako garapenaren aitzakiaz bakar batzuen garaipena bultzatzen den.

“Lan faraonikoak perretxikoak moduan sortzen dira gure inguruan: autopistak, AHT, merkataritza zentro erraldoiak...”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Mutil kontuek

Etxafuego zaratak izan dittugu astien eta ondiokan makiñatxo bat entzun biherko dittugu Aratuste-domekie bittartien. Santa Ageda mutillek die, bai, euren jaixe ospatu guran dabitzenak. Aurten, 28 ei die, zenbaki politte. Baiñe urtetik urtera gutxiago dielakuen nau, eta laster zeozer pentsau biherrien egongo die. Nik neskak onarketako esango neuskie, zeattik ez ba? Muru-Alde elkartien, esate baterako, onartu daue lehenengo emakume bazkidie. Ez dakit danak konforme izengo dien, baiñe gehixenak baiezkuen nau 85 aldeko boto jaso zittuen-eta.

Kirol kontuekin jarraitute **Ander Arieta-leanizbeaskoa** bueltan dogu herrixen. Argentina aldien ibilli da, Akonkagua mendixen hain zuzen be, eta oraintsu bueltau jaku. Mendizalez beteta daukoela herrixen...

Bukaketako Aratus-tiek aittetuko dittut. Gero eta gutxiago falta jaku eta honez gero mozzorue gertaketan hasitte egon biherko zare, bestela... Kultura saillek be, dagoeneko, gertu ei dauke egitarau. Urteroko antzekue izengo dalakuen nau, baiñe zetarako gure dogu ba gehixau? Aratus-te-domekan herriko kuadrillak die girotxue sortzen dauienak, eta aurten be halaxe izetie gureko nauke.

M. J. Aretxaga

UDAL BANDOA/ Txakurren kakak jasotzeko poltsatxoak banatzen dituzte udaletxean

Txakurren gainean hausnarketa egiteko bandoa atera du Udalak

MIRARI ALTUBE

Martitzenean, txakurren gainean ordenantza jarri zuen Udalak herriko atarte guztietan. Bi kontu gogorazi gura dituzte Herri Antolamendu eta Segurtasun Sailetik: batetik, txakurrak errolatu egin behar dituztela jabeek, eta bestetik, txakurren kakak jaso.

Txakurren kontuak gero eta ardurara handiagoa sortzen hasi dira udaletan. Gurean oraindik ez daukagu ordenantzarik, baina bidea egiten hasteko bandoa atera du astean Udalak.

LORATEGIAK KAKAZ BETETA

Herri Antolamendu eta Segurtasun Sailak kaleratu du bandoa. Bi kontu gogorazi gura ditu horren bidez: jabeak euren txakurrak errolatzera eta identifikatzera behartuta daudela; eta txakurrak paseatzera ateratzen dituztenean kaka eginez gero jaso egin beharko dutela. Horretarako, gainera, poltsatxoak banatzen dituzte udaletxean.

Felis Beltran de Heredia Herri Antolamendu eta Segurtasun Sailako zinegotziaren esanetan, gure herriko lorategiak kakaz beteta egoten dira: "Belorrieta auzunean, esaterako, lorategi dotoreak



Belorrietako lorategietan kakarik ez egiteko jarri arren kakaz beteta daude.

daukagu, eta lorezainak dotore edukitzen saiatzen dira, baina ezin dute ezer egin kakekin". Hor-taz, txakurren jabeek hausnarketa egin dezaten kaleratu dute bandoa. "Txakur baten jabe egitera-

koan eskubide batzuk dituzte, baina betebeharrak ere bai: errolatuta egotea, lotuta eramatea eta lurtean uzten dituzten kakak jasotzea; eta bete egin behar dituzte", dio Felisek.



Jende ugari batuzten Institutuaren urteurren ekitaldian

Esker oneko ekitaldia egin zuten egubakoitzean Aretxabaletako Institutuan. Hasi-rako urteak izan zituzten gonbidatu guztiek hizpide. Pablo Txintxurreta zuzendariak eskerrak eman zituzten garai haietan laguntza emandako guztiei: gurasoei, udalei, enpresei eta erakundeiei. Institutuko historiaren berri ematen zuen bideoa ikusita bukatu zuten ekitaldia. /M.A.

LABUR

Bitxiak lapurtu zituzten herriko etxebizitza batetik

Bitxiak lapurtu zituzten joan zen astean -egunean hain zuzen- Santa Kurtz kaleko etxebizitza baten. Halaxe onartu zuen Herrizaingo Sailak, eta salaketa jarri zutela esan. Antza, atetik sartu ziren lapurrak, baina ez zuten sarraila apurtu. Etxean aurkitu zituzten bitxi guztiak eraman zituztieten jabeari.

Herrizaingo Sailaren esanetan, lapurreta horrek ez du esan gura, inolaz ere, gora egin dutenik lapurretek Debagoienean.

San Blas eguna giro ezin hobean ospatu zuten

Martitzenean, Euskal Herriko herri askotan ospatu zuten San Blas eguna. Gurean ere herritar ugari hurreratu ziren Apotzaga-Etxebarri auzoko Sailuente ermitara. Herritarrez gain, ikastetxeetako umeak ere joan ziren, oinez, jakiak bedeinkatzera: ogitartekoak, gozokiak, San Blas opila... Motxila bete-bete eginda eroan zuten batzuek. Ea, bada, San Blas deunaren aurrean bedeinkatutako jaki goxo horiei esker, eztarriko minik izan gabe pasatzen duten urtea.

Ez ohiko osoko bilkura egingo dute otsailaren 16an

Ez ohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak hilaren 16an, astelehen. Martxoko hauteskundeetan mahaietan egon beharko duten herritarrek aukeratu dituzte bertan. Aukeratu-takoek ondoren erreklamatzeko aukera izango dute.

Joan zen astean, bestalde, hauteskundeetan botoa emango dutenen errolda egon zen ikusgai udaletxean. Bost erreklamazio jaso zituen Udaleko idazkariak.

Okindegia - Gozologia

Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABAleta
943 79 64 91

605 71 66 92 / 629 47 72 70

Mortin
erloju-dendaBere bezeroen
zerbitzuraMitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABAleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrakErrekabarren 3- Behea
ARETXABAleta
Tel: 943 79 01 28

Santa Ageda mutilak santa eskean ibili dira baserrietan eta kalean

M.A.

Ohiturari jarraituz aurtengo Santa Ageda mutilak kantuan eta eskean ibili dira astean. Eguaztenean, Santa Ageda bezpera, baserri baserri ibili ziren, eta atzo, Santa Ageda eguna, herriko etxebizitzetatik pasatu ziren. Aurten, 1985ean jaiotako 28 mutil dabilta.

Otsailarekin batera jai ugari etorri zaizkigu, eta guztien artean esanguratsuetakoa -gure herrian behintzat- Santa Ageda jaia da.

AURTEN, 28 MUTIL

Aurten, 1985ean jaiotako mutilak dabilta Santa Ageda mutil, eta 28 bakarrik dira. Urtarrilaren erdi inguruan hasi zituzten dantza entseguak, eta ez dute laguntza handirik izan. Hala ere, gogotsu ibili dira ikasten, eta atzo arratsaldean dotore egiten dutela dantzan erakutsi zuten.

LEHENGO OHITURARI EUTSIZ

Orain urte batzuk, soldadutzara joan behar zuten herriko mutilak ateratzen ziren Santa Ageda egunean kantuan eta eskean. Orain, dagoeneko ez doa inor soldadutzara, baina ohiturari eutsi gura izan diote, eta 18 urte dituztenak



Baserri baserri jardun zuten aurtengo 28 mutilek Santa Ageda bezperan.

ateratzen dira kantuan, eskean eta dantzan egitera.

Santa Ageda bezperan baserri baserri ibili dira, txapel beltza buruan eta brusa jantzita. Heriotzaren bat gertatu bada baserriren batean, kantua edo otoitza gurago duten galdetuko zuten. Bestela, baserri guztietan egin dute kantuan. Lehen ez bezala, gaur egun autoz joaten dira.

Atzo, Santa Ageda eguna, herrian bertan ibili ziren praka

eta alkandora zuriak eta txapel eta gerriko gorriak soinean. Etxa-fuego hotsek eta trikiti doinuek lagunduta kalean gora eta behe-ra jardun zuten diru apur bat batu guran. Arratsaldean, oster, lehenengo dantza saioa egin zuten plazan, dotore egin ere. Hemendik eta Aratuste-domeka bitartean domekero izango dugu zer ikusi, eta dantzan ateratzen dituzten neskek; akaso, txokolate beroa dastatuko dute.



Kepa Urria izan zuten gogoan zapatuan

Hainbat ekitaldi egin zituzten, joan zen astean Kepa Urrak 12 urte bete zituelako kartzelan. Zapatua izan zuten egun nagusia: arratsaldean, eskualdeko manifestazioa egin zuten, eta ostean, afaria izan zuten guztiek Taberna Berri jatetxean. 100en bat lagun elkartu ziren eta giro ezin hobean afaldu zuten Fredi Paya eta Arkaitz Estiballes bertsoariak girotuta.

Otsailaren 13an, Keparen urtebetetze eguna, bestalde, Coruña-ko Curtisera martxa egingo dute Kepari elkartasuna adierazteko. Autobusa 23:00etan aterako da, Azbe lantegitik. /M.A.

PUBLIZITATEA

LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Zer da Leber?

Pedagogiako eta psikologiako profesionalak osatzen duten bulego psiko-pedagogikoa da; hezkuntzaren alorrean 15 urte baino gehiago dihardugu lanean.

Zein zerbitzu eskaintzen ditu?

Diagnostiko psiko-pedagogikoaren bitartez ikaskuntzaren zailtasunen azterketa egiten dugu, eta berreziketa programak abian jartzen ditugu, egon daitezkeen gabeziei aurre egiteko. Bestalde, lehen hezkuntzako haurrekin oinarriko gaitasunak eta ikasteko ohiturak indartzeko programak ditugu eta bigarren hezkuntzakoekin ikas teknikak lantzen ditugu.

Nori zuzenduta daude zerbitzu hauek?

Ikasteko arazoak dituzten umeen gurasoei, irakasleei, gizarte zerbitzuetako langileei eta eskola-adinean dauden ikasleekin lan egiten duen edozeini.

Bulego honek eskaintzen dituen abantailak.

Arrazoi bat baino gehiago



Izaskun Antxia, Virginia Armentia eta Izaskun Urrutia dira Leber kabineteko profesionalak.

egon daitezke ikasketa arazoan atzean: kognitiboak, hizkuntza arazoak, psikologikoak. Guk arazo hauen azterketa sakona egiten dugu, eta arazoa zenbaterainokoa den neurtu. Horren ondoren, umearen familia eta eskola giroa lantzen ditugu irten-

bide egokiena aurkitzeko.

Gurasoek badakite zein zerbitzu den egokiena umearentzat?

Gehienetan ez; bizilagunaren gomendioei egiten diete kasu, eta, noski, arazo guztiak

ez dira berdinak. Horrela, arazo larriei momentuko erantzuna besterik ez diete ematen.

Kasu hauetarako badago errezeta magikorik?

Ez dago bat-bateko irtenbiderik. Profesionalengana joan

behar da, eta haien gomendioei kasu eginaz jarraipena egin. Ez da geratu behar diagnostikoarekin bakarrik; ondorengo lana neketsua eta luzea izango dela onartu beharra dago.

Lehenbailen baldin badoaz hobeto?

Orokorrean bai. Baina garrantzitsua eguneroko lana da, arraipena eta konstantzia.

Zuen bulegora doan jende mota aldatu egin da?

Umeek dituzten zailtasunak eta arazoak ez dira aldatu; gurasoen pentsatzeko era, ordea, bai. Irtenbide azkarrak nahi ditugu, eta ez diogu umeari arazoa gainditzeko behar duen besteko denborarik eskaintzen.

LEBER

Basabe Poligonoa C-2
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 56 98
lebercb@euskalnet.net

IGERIKETA

Hainbat adinetarako egokitutako igeriketa ikastaroak antolatu dituzte

Adina, jakintza maila eta ordutegia izan dituzte kontuan ikastaroak antolatzeko orduan

M.A.

Udaleko Kirol Zerbitzuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Erabiltzaileen adina eta jakintza maila hartu dituzte kontuan taldeak egiteko orduan, eta hainbat ordutegi jarri dituzte aukeran. Aquagyma egiteko aukera ere izango dute aretxabaletarrek.

Osasuna zaintzeko igeriketa bezain kirol osatuagorik ez ei dago, eta hori pentsatuta hainbat ikastaro antolatu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak. Adin guztiak kontuan izaten saiatu dira, eta jakintza mailaren arabera sailkatu dituzte.

NAGUSIAK, ERRETIRATUAK ETA UMEAK

Adinari dagokionez hiru talde osatu dituzte: nagusiak, erretiratuak eta umeak. Igeriketa ikastaroa, baina, ez da ume guztien dako izango; 1997. eta 1999. urte bitartean jaiotakoek bakarrik izango dute, oraingoz, parte hartzeko aukera. Moldaketa ikastaroa emango diete hauei, hau da, igerilekuan egotera ohitzea izango da garrantzitsuena, eta lehenengo pausoak besterik ez dute ikasiko.

Erretiratuei dagokienez, mantentze ikastaroa emango diete martitzen eta eguen goizetan, eta gutxienez sei lagunek eman beharko dute izena.

Nagusiendako ikastaro gehiago antolatu dituzte, eta ordutegia aukeratu ahal izango dute. Bate-



Umeendako, nagusiendako eta erretiratuendako dira igeriketa ikastaroak.

tik, hastapen ikastaroak izango dituzte astelehen, martitzen, eguen eta egubakoitzetan, bai goizez, bai arratsalde. Bestetik, hobe-kuntza ikastaroak emango dizkiete, goizez zein arratsalde. Hastapen ikastaroek aurrera egin dezaten, gutxienez lau lagunek eman behar dute izena, eta hobe-kuntza ikastaroetarako seik.

Igeriketaren beste alderdi bat ezagutzeko aukera ere emango

dute Kirol Zerbitzuetako arduradunek; izan ere, aquagym ikastaroa antolatu dute. Astelehen, martitzen eta eguaztenetan izango dituzte eskola horiek, 18:30etik 19:00etara, eta parte hartzeko 16 urtetik gora izan beharko dute.

Ordutegien eta prezioen informazio zehatzagoa gura duenak kirol etxera jo dezala (943 71 26 28) eta bertan esango diote jakin gura duen guztia.

ESKIA

Luz Ardidenera joango dira eskiatzera, martxoaren 6an eta 7an, Murruxoko kideak

Murruxoko Mendizale Elkarateak eskiatzera joateko irteera antolatu du martxoaren 6rako eta 7rako. Luz Ardidenera joango dira, azken urteetan bezala. Prezio barruan logela, gosaria, afaria, autobusa eta segurudun forfaita sartu dituzte. Murruxoko bazkideek 85 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 90; ikasleek, bestalde, bazkide izan edo ez, bost euro gutxiago.

Informazio gehiagoren eskean datorrena edo izena emateko asmoa duena Murruxoko Mendizale Elkarateak Durana kalean duen txokotik pasa dadila, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean, edo 943 79 93 74 telefono zenbakira egin dezala dei.

XAKEA

Aurkari indartsuak izan arren, bere maila ematen dabil Arlutz Xake Taldea Euskal Ligan

Arlutz Xake Taldeko kideek bazekiten aurkari indartsuak izango zituztela aurtengo denboraldian Euskal Ligan. Hala ere, ez dabilta batera gaizki. Bi partida galdu dituzte, Donostiako Grosen eta Bilboko Rey Ardid taldeen aurka. Biak ere oso indartsuak dira; azken talde horrek, esaterako, nazioarteko maisu bi ditu. Errenteriarren aurka, bestalde, berdindu egin zuten, eta Gasteizko San Viator taldeari irabazi egin zioten. Aste bukaera honetan Pasaia-ra joango dira jokatzera, eta ikusi egin behar zer gertatuko den.

Euskal Ligaren inguruko informazioa TVEko teletestuen 290. orrian agertzen da, eta Arlutz Xake Taldea ere han dago.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Elgoibar
Preferentea.
Zapatua. Elgoibar.
UDA/Almen-Zarauz
Ohorezko gazteak.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxabaleta-Aurrera
Hirugarren mailako seniorrak.
Egubakoitza. 20:00. Iturigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 3 Trintxerpe 0
Preferentea.
Mondra 2 UDA 0
Ohorezko gazteak.
UDA 3 Antoniano 4
Lehenengo mailako gazteak.
Beraun 1 UDA 4
Lehenengo mailako kadeteak.
UDA 1 Kostkas 3
Bigarren mailako kadeteak.
Spo. Herrera 0 UDA 2
Ohorezko infantilak.

Eibartarrak 0 Almen/UDA 1

Lehenengo mailako infantilak.
Almen/UDA 4 Salvatierra 0
Emakumeen liga.
UDA 5 Anaitasuna 1
Alebinak.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa
Aretxabaleta 22-Beloki 15
Lehen mailako seniorrak.
Beste partidu biak ez zituzten jokatu.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETAK
Tel. 943 79 29 26

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAK

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETAK

Jou Diaz
Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAK

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAK

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 96 66 / Faxes: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK



maiteminduen eguna



Arrosa-sorta

NERIAN LORADENDA
Otalora 14 Aretxabaleta

San Valentín eguneko argazkia

M^o JESUS ARGAZKILARIA
Herriko plaza10 - Aretxabaleta



Simone Perele barruko erropa

XARMANTA OPARIAK
Gaztainudui 21 Eskoriatza



Yoel kamiseta

KAKI JANTZI DENDA
Hidalga 15 Eskoriatza



Francesco Biasia poltsa

LIE LURRINDEGIA
Mitarte 18 Aretxabaleta

KURTZEBARRI ESKOLA

2-12 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI
ESKOLA

KURTZEBARRI BHI

12-16 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI
BHI

2004-2005 ikasturterako matrikula epea zabalik: otsailaren 16tik 27ra



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefona / Faxe: 943 79 00 49
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

Telefona / Faxe: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

GOIESKOLA



baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 6a / 154. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Ohiturak berreskuratu guran hasi zuten Santa Ageda jaia aurtengo kintoek

AINTZANE GARDOKI

Ohituraren arabera Eskoriatzako kintoek Santa Ageda bezperan eta Santa Ageda egunean bertan ateratzen ziren baserri baserri eta kalez kale kantuan eta eskean. Aspaldian, aldiz, egun bat gehiago hartu dute kintoek jai egiteko. Aurtengoak, aldiz, bezperan atera dira kalera.

Maider Otamendik eta Gorka Arresek urte mordoxka daramatzate herriko kintoei dantzak irakasten. Asier Gabilondo txistularia beti izan dute entseguetan lagun. "Aurten, 19 mutil gazte izan ditugu dantzak ikasten", esan digu Maiderrek. "Talde jatorra izan da. Txikitan, asko eta asko dantzari izandakoak ziren, gainera. Beraz, aurtengo lana polita izan da: bate-tik, taldea txikiagoa izan da, eta bes-tetik, dantzak irakastea baino gehiago, gogoraztea izan da gure lana", gaineratu du Maiderrek.

Azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, bezperaren bezperan atera izan ohi dira kintoak eskean. "Makinatxo bat ahalegin egin dugu aurten ere otsailaren 3an atera ez zitezen. Hori dela eta, besteak beste, Museo Eskolako Isabel Guridik



Santa Ageda bezperan, baserri baserri ibili ziren kantuan. Bazkal ordurako, nekeak jota zeuden guztiak.

Santa Ageda eguneko ohituen gaineko hitzaldia egin zien. Hala ere, aterako zirela esan ziguten. Baina, azkenean, martitzenean, egun osoz atera beharrean iluntzean bakarrik

atera ziren diru eske. Beraz, ohitura berreskuratu guran, aurten pauso txiki bat eman dugulakoan gaude", esan digu Otamendik. Baserri baserri eta kalez kale ibili eta


gero, ederto dantza egin zuten egue-nean Herriko Plazan.

Datorren domekan, hilak 8, berriro egingo dute dantzan kintoek, Herriko Plazan, 19:00etan.

"Txikitan, asko eta asko dantzari izandakoak ziren, gainera"

"Makinatxo bat ahalegin egin dugu aurten ere otsailaren 3an atera ez zitezen"

"Ohitura berreskuratu guran, aurten pauso txiki bat eman dugulakoan gaude"



KZguneak ikastaro berriak antolatu ditu otsailerako

Iazko maiatzaren 30ean ireki zuten KZgunea Eskoriatzan, eta ordutik hona 110 erabil-tzaile izan ditu. Otsailerako sei eskola prestatu dituzte arduradunek, denak dohainik eta ordutegi malguan. Interneti buruzko oinarriko ikastaroa edo aurreratua egiteko aukera eta hainbat mintegi jarri dituzte abian: postalak bidaltzen eta gustuko irratsaioak sintonizatzen irakatsiko dute hilabete honetan. Horrez gain, bankuko kontuak Internet bidez nola egin azalduko diete ikastaroetara joaten direnei.

LABUR

Coral Rodriguez sozialistak zinegotzi kargua hartu du

Eguenean, hilaren 29an, udalbatzak urteko lehenengo osoko bilkura egin zuen. Bertan, PSE-EEko Coral Rodriguezek zinegotzi kargua hartu zuen. 2003ko udal hauteskundeetan Iñaki Pierruges izan zen zerrenda-burua. Bere atzetik zeuden hautagai guztiak ezezkoa eman diote kargua hartzeari. Hauteskunde batzordeak izendatu du Coral kargurako. Eibartarra da eta medikuntzan lizentziaduna da Rodriguez. Aurreko agintaldian, Madrilen diputatu izan zen.

EHUN BAT LAGUN HUHEZI-REN JARDUNALDIETAN

Enpresetako euskararen egoera hobetzeko, lan egiten jarraitu beharra

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Iaz, Arrasateko Amaia antzokian *Kooperatibak eta euskara* liburua aurkeztu eta gaiaren inguruan topaketa egin zen. Egun hari jarraipena emateko asmoz, urtarrilaren 29an, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak *Enpresetako euskara planen eragileentzako jardunaldiak* egin zituen herrian.

Iazko gaiak motibazioa eta gogoia pizten duela, eta iaz Amaia antzokian izandako arrakasta ikusita, unibertsitateak gogoeta egiten jarraitzeko gunea ireki nahi izan die aurtengoan ere hainbat eragileri.

HUHEZIK antolatutako ekimenean hainbat gai tratatzeko aukera izan zuten hizlariak. Hitza hartu zutenak bailarako hainbat enpresatoko ordezkariak izan ziren, eta orokorrean jorratutako gaia ibarreko enpresetan erabiltzen den euskara izan zen.

Eskoriatzako fakultatean batu ziren, entzule gisa, hainbat enpresatoko eta udaletako euskara teknikariak, enpresetako euskara koordinatzaileak, sindikatuak,

Eragileen arteko koordinazioa eta bilgune baten beharra dagoela ondorioztatu da

eta euskara planak martxan jarri nahi dituztenak. Hain zuzen ere, azken horiek ez zuten entzule soilaren papera izan, gainerakoei beraien kezka, iritzi eta asmoak helarazteko aukera eskaini zieten; eta, hala, jardunaldi aberatsagoa bultzatu zuten.

Iaz proposatutako helburuak bete direla azpimarratu zuten antolatzaileek jardunaldiak amaitzerakoan. Nahia Intxausti jardunaldiaren koordinatzaile lanetan aritu da, eta urtarrilaren 29an eginikoa azaldu digu: "Finantzaketa, euskara planen eboluzioa, motibazioa eta itzulpengintza eta terminologia gaien inguruan eztabaidatzeko taldeak osatu geni-



ARETXAGAZETA

Hitzaldietan bailarako hainbat enpresen ordezkariak egon ziren.

tuen eztabaida sortzeko. Ondorioei dagokienez, eragileen arteko koordinazioa eta bilgune baten beharra aipatu zituzten, batzorde tekniko baten beharra, finan-

tzaketan, metodologian eta tresnetan oro har dagoen masa kritiko aktibatu honetatik aurrera jarraitu ahal izateko", azaldu digu Nahia Intxaustik.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SANTA AGEDA OSPAKIZUNAK

Santa Ageda ospatzeko urtero egiten duten legez, Eskoriatzako kintoak dantza egitera irtengo dira. Domekan, arratsaldeko 18:30ean, zaharren egoitzara joango dira, eta ordu erdira, Herriko Plazan geratu eta ikasitakoaren erakustaldia egingo dute. Kintoen dantzez gain, egubakoitzean, hilak 13, Inkernu tabernan bi musika talderen doinuez gozatzeko aukera egongo da. 23:00etan, Eskoriatzako Tehelukas Prest eta Arrasateko 4 Lau taldeek beraien estiloa nolakoa den erakutsiko diete Inkernura gerturatzen direnei.

AXTROKIRENAGENDA

PROPOSAMENAK JASO GURAN

Aurtengo kultura ekitaldiak prestatu ahal izateko, Axtrokik bazkideen proposamenak jasotzeko gura dituzte. Axtroki @topagunea.com-era bidali proposamenak.

TXUTXUMUTXUA



Amuskak antolatuta, hainbat ikastaro

Amuska Emakume Taldeak hainbat ikastaro antolatu ditu hilabete honetarako. Olio pintura, altzairuen zaharberitzea, larrua... lantzeko eskulak dira, besteak beste, eskainiko diren eskolak. Adin guztietako emakumeek hartuko dute parte. Izenematea gizonetako ere irekita egon arren, inor ez da animatu. Astelehenean hasiko dira ikastaroak kultura etxean, eta ekainera arte iraungo dute astean behin emango diren eskolak.

LABUR

Elorrietako etxeak egiteko baimenak Foru Aldundiak

Joan den astean eman zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Elorrietan etxebizitza berriak egiteko behin-behineko onarpena. Elorrietan egingo dituzten 51 etxebizitzak egiteko lurak egokitzen hasita daude dagoeneko. Orain, kontentsazio eta urbanizazio proiektuez gainera, etxebizitzaren proiektua ere aurkeztu beharko dute arduradunek udaletxean. Datozen sei hilabeteetan lanak hasteko moduan izango direla jakinarazi digute Udaletik.

EDURNE
ESTETIKA
ZENTROA



Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?
Depil Plus sistemarekin zure arazoa
ordutan konponduko dugu...

**ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA**
HORTZ
KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

UME ETA GAZTETXOENDAKO ZINE EMANALDIAK

Herriko ume eta gazteei zuzendutako filmak ikusgai

AINTZANE GARDOKI

Joan den domekan, otsailak 1, Gatz Museoa zine emanaldia egin zuten herriko ume eta gazteendako. Gatzagak Guraso Elkarreak (GUREL) jarri du ekimena abian. Lehenengo egunean ume eta gazte ugari hurbildu ziren filma ikustera. Otsaileko domeka guztietan emango dute filmen bat.

Arduradunen esanetan, ez zitzaizkien gauzak gura bezain ondo atara zinea eskaini behar zuten lehenengo egunean. "Baloia filma aukeratu genuen. Baina, egia esan, ez zen batere ondo ikusten DVDA. Gero eta txarrago ikusten zenez, azkenean, filma aldatu behar izan genuen. Ikusleen arteko nagusienak joan egin ziren. Hegaztien gaineko dokumentala jarri genuen", esan digu GURELeko batzordekide Ana Esnalek. "Dena dela, datoren asterako izugarritzko film ona ekarriko dugula hitz eman genien gazteei", gaineratu digu.

Gatz Museoko bideo gela aprobetxatu guran, duela hilabete pare bat GURELetik eskaera egin zieten gurasoek museoko arduradunei. "Amaiak eta Aitziberrek segituan eman ziguten baiezkoa. Beraz, lana eta ardurak banatu egin genituen gure artean", esan digu Ana Esnalek. "Hiru aita-amok hartu genuen igandeko zineaz arduratzeko lana. Txandaka, Txema Fernandez, Jabi Egidazu eta ni neu



Filma ikusten duten bitartean gazteek ezin izango dute litxarreriarik jan aretoan.

"Hiru aita-amok hartu genuen igandeko zineaz arduratzeko lana"

egongo gara zine aretoan", jarraitu du. "Hasieran hilabete baterako planteamendua egin dugu. Arrakasta izaten badu, beharbada, beste hilabetez luzatuko dugu esperientzia. Gero, udaberria has-


"Arrakasta izaten badu, beharbada, beste hilabetez luzatuko dugu esperientzia"

ten denean, eguna luzatu eta jendeak beste plan batzuk egiten ditu. Dena dela, ikusiko dugu zelan erantzuten diogun ekimen berri honi", amaitu du Anak. Film guztiak euskaraz emango dituzte.

LABUR

Gatzaga bisitatu zuen Gipuzkoako Landa Ingurunearen Garapenerako foru diputatuak

Landa Ingurunearen Garapenerako foru diputatu Nuria Lopez de Gereñu egon zen Gatzagan joan de egubakoitzean, urtarrilaren 30ean. Mendi Nekazaritzako Mari Karmen Iturberekin batera etorri zen diputatua. Herriaren gainekoak jakin eta hurbiletik ezagutu gura izan zituen Lopez de Gereñuk. Udaletxea, Jakion, Gatzanuzketa eta Gatz Museoa bisitatu zituzten, besteak beste. Lopez de Gereñuk Foru Aldundian kargua hartu duenetik Gatzagara egindako lehenengo bisita izan du.



Heziketa aproposa nola eman seme-alabei

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Itziar Etxebarriak hitzaldia egin zuen Gatzagan. Seme-alabei gizarte-hezkuntzan oinarritutako heziketaren gainean hitz egin zien Itziarrek bildutakoek. Puntu ugari ukitu zituen, baina, azken baten, eredu onak emanez hezi behar direla umeak esan zien gurasoei; erresponsabilitatean hezi behar direla umeak, eta ez zigorgabetasunean.

SARRERA DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Ikusiko
duzu!**

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili



LUIS EZEIZA LHI
2-12 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI BHI
12-16 urte bitartekoentzat



2004-2005 ikasturterako matrikula epea zabalik: otsailaren 16tik 27ra



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kultura batzuk era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefona / Faxe: 943 71 49 38
e-maila: 012065aa@hezkuntza.net

Telefona / Faxe: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



**04-05 ikasturterako
matrikula epea zabalik**

otsailaren 16tik 27ra

**Jose Arana
Udal Haur Eskolan
(0-3 urte)**

Aranburuzabala, 1 • 943 71 31 58

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.



eskoriatzako
udala

A
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGVNEKO MENYAK
OTARTEKOKK ETA
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

COMPOSTELA
Taberna
Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaledea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA